BESTELAKO XEDAPENAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA

1425

EBAZPENA, 2012ko martxoaren 7koa, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, beraren bidez ebazten da urari eta ur-sistemei loturiko berrikuntza, ikerketa eta garapen programetarako eta egitasmoetarako diru-laguntzen deialdia. Diru-laguntza deialdi hori 2011ko abenduaren 19ko Ebazpen bidez arautu zen.

Aurkeztu diren espedienteak aztertu dira, aipatutako 2011ko abenduaren 19ko ebazpen horren 6. eta 7. artikuluetan ezarritakoari jarraituz.

Agindu horren bidez araututako diru-laguntza horiek lehiaketa bidez esleitu behar dira, Ebazpenaren 9. artikuluari jarraiki, eta hala ezarri baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginak –azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onetsitakoak– bere 51.4. artikuluan.

Laguntzak arautzen dituen ebazpenaren 9 artikuluan ezarritako ebaluazio-organoak diru-laguntzetarako eskaerak aztertu eta ebaluatu ditu, Ebazpenaren 11. artikuluan finkatutako irizpideei jarraiki, eta ebazpen-proposamena aurkeztu dit gero. Proposamen horretan, diruz lagundu daitezkeen jarduerak zehaztu dira, bai eta diru-laguntzaren zenbatekoa ere.

Kontuan izan dira: Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onetsi duena; Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea; 2011ko abenduaren 19ko Ebazpena, eta orokorrean zein berariaz aplikatu behar diren gainerako arauak.

Uraren Euskal Agentziako sailburuorde naizen honek, 2010eko otsailaren 25eko Ebazpenaren 12. artikuluak emandako eskumena erabiliz, honakoa

EBAZTEN DUT:

1.– Ebazpen honetako I. eranskinean zehaztuta dauden diru-laguntzak ematea, bertan adierazitako jardueretarako eta bertan zehaztutako zenbatekoan.

Diru-laguntza jaso duten jarduerak 2011ko abenduaren 19ko Ebazpenak ezarritakora egokituko dira, eta ordainketak ebazpen horren 16. artikuluak ezartzen duen bezala egingo dira.

2.– II. eranskinean agertzen diren jarduerei diru-laguntzarik ez ematea, agortu baita diru-laguntzetarako esleitutako aurrekontu-kreditua.

3.– III. eranskinean zerrendatutako jarduketei dirulaguntzarik ez ematea, 2011ko abenduaren 19ko Ebazpenaren 1. artikuluaren arabera, ez direlako dirulaguntzaren xede.

6.– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen eta, bere aurka, interesdunek gorako errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuari, hilabeteko epean jakinarazpena jasotzen dutenetik.

7.– Ebazpen hau erakunde interesdun bakoitzari jakinaraztea.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko martxoaren 7a.

Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusia,
IÑAKI URRIZALQUI OROZ.

I. ERANSKINA

DIRU-LAGUNTZAK, 2011KO ABENDUAREN 19KO EBAZPENAREN ARABERA EMANDAKOAK

Onuraduna	Diruz lagundutako ekintza	Aurrekontua	Diruz lagundutako ehunekoa	Emandako diru-laguntza
Inatec Fundazioa	Glikolekin nahastutako ur-efluenteen tratamenduaren eskala	90.808,25 €	60,00%	54.484,95 €
Tekniker Fundazioa	Ospitaleko isurketa saneamendu-sarera hirugarren mailako tratamendu berezien bitartez egokitzea	124.988,02 €	60,00%	74.992,81 €
EHU Ingeniaritza Kimikoa eta Ingurumenaren Ingeniaritza Saila	EAEn kutsatzaile iraunkorrak eragozteko UV/H2O2 teknologia aplikatzea	28.677,44 €	60,00%	17.206,46 €
EHU Zoologia eta Animalia Zelulen Biologia Saila	Euskal kostaldeko hondoetako korrokoi (Chelon labrosus) populazioan disrupzio endokrinoa sortzen duten biomarkagailu arrunten bidezko biomonitoreoa eta araztutako uretan kutsatzaile disruptoreen bioentsegu eta biosentsoreen bidezko sailkapena	99.099,00 €	60,00%	59.459,40 €
Vitoria-Gasteizko Udaleko ingurumen saila	Vitoria-Gasteizko udalerriko ingurune urtarretan espezie inbaditzaileek sortutako eraginei buruzko ikerketa-programa	43.574,00 €	60,00%	26.144,40 €
Euskal Espeleologoen Elkartea	Trazatzailearen bost entsegu egin eta EAEko espeleologia-taldeari zuzendutako metodologia garatu eta balizkotzat jotzea. Metodologia hori eremu karstikoetako lurpeko uren ikerketari zuzenduta egongo da eta kuantitatibo entseguak erabiliko dira horretarako	42.342,00 €	60,00%	25.405,20 €
Aranzadi Zientzia-Elkartea	Agrokimikoak eta ur-baliabideak II: Elkarreragin ekologikoak eta glifosatoaren zeharkako eragina anfibioetan	24.426,00 €	60,00%	14.655,60 €
Tecnalia Fundazioa	Nanozuntz adsorbatzaileak eta nanopartikula fotoaktiboak, gora egiten ari diren lehentasunezko substantziak dituzten urak kutsaduraz gabetzeko garatu eta aplikatzea	158.000,00 €	55,00%	86.900,00 €
Zigoitiko Ur Partzuergoa	Etxebarri-Ibiñako putzu-araztegian ur gaineko makrofitak ezartzea	69.225,90 €	55,00%	38.074,25 €

II. ERANSKINA

DIRU-LAGUNTZAK, 2011KO ABENDUAREN 19KO EBAZPENAREN ARABERA EZ EMANDAKOAK, AGORTU BAITA DIRU-LAGUNTZETARAKO ESLEITUTAKO AURREKONTU-KREDITUA

Erakundea	Jarduera/ Actividad
EHU Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia Saila	Presa txikietan dinamika geomorfologikoa baloratzea, eraitsiko direla aurreikusiz
Gaiker Fundazioa	Hondakin-uren arazketa-prozesua nitrifikazio bidezko nitrifikazio-desnitrifikazioaz garatu eta optimizatzea
AMVISA	Toxikotasunaren test azkarra eta mikroalga toxikoen alertaren III. Fasea
Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Eusko Fundazioa	Hondoko mailen ebaluazioa eta HUAn lehentasunezko kutsatzaileak kentzeko errendimendua
EHU Kimika Analitikoa Saila	URtegietako sedimentuetan Metal Astunen Edukia neurtzeko anaLisi-metodo berdeen garapenA (URMAELA)
Alegria-Dulantziko Udala	Euri-uren berrerabilpenean oinarritutako eraikuntza-sistema ekoeraginkorra
Ceit Azterketa eta Ikerketa Teknikoen Zentroa	HUAetan, oxigeno-transferentziaren eta negutegi-efektuko gasen igorpenaren azterketa. Galindoko HUAn aplikatzea
Arteaga Fundazioa	Ekogunea parkean drainatze-sistema iraunkorrak (SUDS) garatu eta ezartzea
EHU Geodinamika Saila	Landare-estalduraren eraginak arroen ekarpen hidrologikoen gainean. Ondorioak lurraldearen kudeaketa-politiketan
Goieki, S.A.	Estanda errekako eta Oria ibaiko eta azpi arroetako flora inbaditzailearen kartografia eta erradikaziorako eremuen aukeraketa
Zumaiako Udala	Errekastoen egoera eta potentziala ezartzeko azterlana eta ekosistemak lehengoratu eta berrekuratzeko teknikak aplikatzeko proposamenak
Lurgaia Fundazioa	Muxikako (Bizkaia) Undabason, baso autoktonoa lehengoratzeko espezie inbaditzaileak erauzteko proiektu pilotua
EDE Fundazioa	Nerbioi ibaiaren tarte batean (Bizkaia), landare exotiko inbaditzaileen espezieak eta narriatutako urbazterrak identifikatu eta sailkatzea
Enkarterriko Udal Mankomunitatea	Eraginkortasuna eta iraunkortasuna URA baliabide naturalaren erabileran
Félix Ugarte elkartea	Oinberde konplexuan, Aralar Mendilerroko hegoaldeko azpi-unitate hidrogeologiko jurasikoan, hidrodinamika karstikoaren azterketa-proposamena
Aiako Udala	Altxerriko kobazuloko (Aia) uren kalitatearen eta ekosistemaren azterketa
Intertek	Alkohol erregaiak (bietoh/gasolina) lurpeko uren kutsaduran duen eraginaren ebaluazioa
Busturialdeko Ur Partzuergoa	Kloroetenoen kutsadurak eragindako eta deskonektatutako Euskotren zundaketa bateko ura erabiltzeko aukerei buruzko azterketa
Itsas Gela elkartea	Ozeanoetako eta kostaldeko ekosistemen biozaintza
Urduñako Udala	Urduñako kirol-ekipamenduaren eremuan Nerbioi ibaiaren urbazterrak lehengoratzea eta erabilera beste eremu batean soluzio ekologiko eta naturalen bitartez lehengoratzeko azterlana
Garaion Natur Artea	Landare bidezko ur garbiketa sistema Otazan
Arkeolan Fundazioa	Dendroklimatologia. Araban 1308 eta 2008 bitarteko epealdian euri indizeak berregiteko proposamena

III. ERANSKINA

DIRU-LAGUNTZAK, 2011EKO ABENDUAREN 19KO EBAZPENAREN ARABERA EZ EMANDAKOAK, EZ DIRELAKO DIRULAGUNTZAREN XEDE

Erakundea	Jarduera
Enkarterrietako landa-garapeneko elkartea	Enkartazioetako ur-sistemen berrikuntza eta ikerketa
Arabako Errioxako Uren Partzuergoa	Kontrol-zentro berria ezartzea - Scada delakoak integratzea.
Otxandioko Udala	Kontrolaren automatizazioa eta “Atxin” hartunearen kontrol jarraitua
Belandiako Administrazio-Batzarra	Belandiako Administrazio Batzarrean ur-baliabideen hornidura eta banaketa hobetzeko proiektua egitea
Donemiliagako Udala	Donemiliagako herriguneetan hornidura- eta saneamendu-sareak optimizatzea
Amurrioko Udala	Amurrioko ur-sarea kudeatzeko matematika-eredua ikertu eta garatzea
Azkoitiko Udala	Oñartxoko zabortegiko lixibiatuen tratamendua egin eta ezartzea, ibilgura isuri ahal izateko
Ibaizabal Zerbitzuen Ermandadea	Soxo, Erbi, Luxo eta Opellora herrietan klorazioa eta komunikazio-sistema jartzea
Aramako Udala	Araman Jauregi, Etxeberri, Eguzkilore, Mendizabal eta Iturrioz baserrietako lurzoruen drenatze lanak egiteko proiektuaren erredakzioa
Lazkaoko Udala	San Prudentzio auzoko uraren hornidura-sarearen azterlan hidrologikoa